

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Esne abeltzaintza, kinka larrian

Ibon Peñagarikano eta Izaskun Aizpurua Urnietako Sabordegi baserriko nagusien lekukotza gordina / 8-9

Berdintasun Plan berria aurkeztu dute Urnietan

2025era bitarteko iraupena izango du hirugarren Berdintasun Planak. Egitasmo berriarekin Udalerriari eta herritarrengan eragin nahi dute / 12



Adimen emozionala hizpide, Donna Apellaniz terapeutaren eskutik / 2-3



Osasun arloko sindikatuek deituta, greba deialdia eta manifestazioa iragarri dituzte / 4



Andoingo Piano Jaialdiaren edizio berria, asteburu honetan Bastero Kulturgunean / 6

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.

ARABA 945 712 822
GIPUZKOA 943 903 450

BIZKAIA 946 523 935
NAFARRGA 848 870 917

- ZILORA JAISITAKO OBJEKTUAK BERRIKURATZEA
- IRIDGAILUKO ZARATAK
- 365/36/7
- NARRAPATZE EGONAK

bertako igogailuak-ekin | zerbitzua 24/7
www.bertako.eus

Emozioak landu, bidelagun ezin hobe izateko

Adimen emozionala hizpide, hitzaldia eman zuen Donna Apellaniz terapeutak Urnietako Lekaion: "Emozioen garrantzia familian". Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen duen "TREBA Gurasoak" ekimenaren eskutik antolatu zen hitzordua



Donna Apellaniz Nietok hitzaldia eman zuen, Urnietan. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hain berezko, baina, era berean, hain ezezagun. Sentitzen den horri hitza jartzen lanean dihardu buru-belarri Donna Apellaniz terapeutak. Hala, eskola barnera salto egin eta emozioen hiztegia irekitzeko beta eman zuen hilaren 2an, Lekaio kultur etxean, "Emozioen garrantzia familian" hitzaldian. Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen duen "TREBA Gurasoak" ekimenez, etxe barruko emozioen kudeaketaz jardun zen terapeuta, eta bertaratutako herritarrak barrura begira ipini zituen, haurren bidelagun hobeak izan daitezkeen beren hazkuntza- nahiz heziketa-prozesuan.

Magisteritza ikasi berritan, egungo hezkuntza-ereduarekin dituen desadostasunek eraman zuten Apellaniz beste bide bat hautatzera: adimen emozionalaren lanketa. "Haurrekin lanean, jabetu nintzen, neure burua gehiago ezagutu bezala, umeak hobeto ulertzeko aukera nuela". Hori horrela, gatazkak "beste modu batean" kudeatzen hasi zen, txikien jarreraren atzean zegoen horri erreparatzeko eta zaintzeko. "Maiz ez dugu lengoia berean hitz egiten. Burutik hitz egiten dugu helduok, eta haurrek, aldiz, emozioetatik".

Partsonak, izotz-bloke

Daniel Goleman psikologoaren hitzak gogora ekarrira ekin zion hitzorduari, emozioek duten garrantzia plazaratzeko: bizi-arrakastaren %80 adimen emozionaletik dator. Ostera, norbanakoak gaizkiegona sentitzen duenean du soilik azken horretan arreta ipintzeko joera, Apellanizek azaldu lez. Hala, kudeaketa ezaren aurrean, jarreretan islatzen omen dira emozioak: "Haurren jarrera

desekogietan ipintzen dugu fokua; alabaina, beti azalean gelditzen gara, ohartu gabe barruan dugunagatik garelako". Hari horri tiraka, iceberg baten pareko irudikatu zuen norbanakoa. Goialdean, zati ikusgarrian, jokatibideak kokatu zituen. Dena dela, gogorarazi zuen ur azpian dagoen zatia dela handiena; bertan, emozioak, beharrak (asetuak, asetu gabeak) eta sinesmenak (mundu-ikuskerak, usteak) izendatu zituen, "norbanakoaren jarrerari eusten dioten hiru elementuak". Horrela, azpialdean dagoenari arreta ipintzean dagoela gako adierazi zuen, jokarera zaindu ahal izateko: "Jarrera agresiboa duen haur baten atzean, ume beldurtu bat dago beti".

Sentitu, bizitzeko

Emozioa= e + mozioa. Energiaren eta mugimenduaren arteko nahasketaren emaitza gisa definitzen ditu emozioak Apellanizek, "mugitzen gaituzten energiak dira, izan ere, sentitzen ez badugu, ez gaude bizirik". Adituaren iritziz, guztia izendatzeko premia sentitzen du gizakiak, baina "emozioak zer diren nahiz zertarako balio duten ez baldin badakigu, horien kudeaketa okerra egingo dugu". Haren aburuz, emozioak identifikatzeko gai izateak testuinguruan ipintzen laguntzen dio norbanakoari, "ezagutu behar baitugu zer den barruan duguna, ondoren, ulertzeko zer ari zaigun gertatzen".

"BURUTIK HITZ EGITEN DUGU HELDUOK, ETA HAUREK EMOZIOETATIK"



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



INSTITUKO



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

Halaber, hiru geldialdiko bi daia gisa irudikatu zuen emozioen ibilbidea. Lehenik, intentsitate baxuan aurkitzen da, eta goranzko joera hartzen du, harik eta erantzun emozionala eman arte, emozioa azaleratzen den arte. Ondoren, berriro, emozioaren intentsitatea jaitsi egiten da, eta, era berean, arrazoia gailendu. Zenbat denbora hartzen du, ordea, prozesuak? Makina bat ikerketek aztertu dute emozioen iraupena: gutxienez, mikrosegundo batez (10-6 segundo) sentitzen dira, eta, gehienez, hoge minutuz jarraian. Zergatik, egon daiteke, orduan, norbanakoa zehaztutako hori baino denbora luzeagoan tristuraz, adibidez? Apellanizek badu horretarako erantzuna: “Helduaroan, arrazoimenak pisua hartzen du. Ondorioz, emozioa denboran iraunarazteko joera daukagu, hau da, sentimendu bihurtzen da. Buruan darabilguna egia dela sinestean, emozio horiek berpizten dira, sentimendu gisa, intentsitate baxuagoan”. Beraz, adituaren esanetan, eragin handia eduki dezake pentsamenduak aldarte emozionalean.

Laukotea

Ez erreprimitzeko, era kontzientean sentitzearen beharraz mintzatu zen Apellaniz, eta, sailkapenak sailkapen, lau emozio primario bereizi zituen: lehenak, norbanakoa itxiarazten dutenak, beldurra, amorrua eta tristura dira. Aldiz, laugarrenak, pozak, irekitasuna ematen du. “Emozioez ari garenean, garrantzitsua da kutsu negatibo eta positiboaren etiketa kentzea”, jakinarazi zuen hizlariak, “guztiak direlako baliagarriak, guztiak dutelako helburu bat. Ezezaguna zaigunean ukatu egiten dugu emozioa, haserretu egiten gara”.

Ildo beretik, bizitzaren kontzeptua lerro horizontal baten bidez irudikatu zuen: alde batean, mina kokatu zuen, eta, beste aldean, plazera. Bada beldurrak, tristurak eta amorrurak lehen muturrari erantzuten diote, mina zaintzeko mekanismoak omen direlako. Eta, pozak, ostera, plazerrari: “Haurrek mina ez bizitzen ahalegintzen gara, baina ekidin ezina da hori”. Bi min mota bereizi zituen jarraian: lehenik, min naturalari (fisikoari) egin zion erreferentzia, eta horrek babes-



Adimen emozionalean aditua da Apellaniz. AIURRI

ten ikasteko aukera bermatzen duela azaldu zuen. Bigarrenik, min gehitua (zauri emozionalak) delakoaz jardun zen, inongo irakaspen positibotik gabeko orbanek, alegia; besteak beste, irainek sortzen duten kalteez: “Min naturalak ikasten laguntzen du; bestea ekidin egin behar dugu”. Hori dela eta, ezinbestekotzat du adituak itxuraturatik ateratzea, emozioei aitortza egitea, minetik urruntzeko eta plazererako bideari ekiteko. Banan-banan azaldu zituen lau primarioak; horien arteko nahaturatik jaiotzen dira gainerako guztiak:

- **Beldurra:** mehatxutik, arrisku-rik babestea du helburu. Ondorioz, blokeatu egiten da norbanakoa hiperbabesa dela eta, tentsioan baitago, alerta. Ziurgabetasuna sentizean, ihes egiten du gorputzak. Hala, helduek haurren babesgune izan behar dute neurrik, adituaren arabera: “Ziurtasuna eman eta lantzen joatea da oinarria. Segurtasun-esparrutik abiatuta, bidelagun izatea”.
- **Tristura:** sinesmenek kale egin da, galera fisiko nahiz sinboliko baten aurrean sentitzen den emozioa, minera zuzenezuenen joaten dena. Nork bere buruarekin egoteko premia sentitzen du, intimitatea eskatzen du, barrura begira

"HAURREK MINA EZ BIZITZEN AHALEGINDU ARREN, EZINEZKOA DA HORI"

ipintzeko. Energia jaisten du zauriari erreparatzeko eta hori ixteko. “Zauri emozionalak inongo bizitzatik, odolustu egiten gara emozionalki. Tristurak, zaintza eskatzen digu, galdu dugun horrekin bizitzen ikasteko”, nabarmendu zuen terapeutak. Beraz, haurrei dolua bizitzen utzi behar zaie-lakoan da Apellaniz, hori egin ezean, esperientziak emandako irakaspena kendu egiten delako: “Haurrak sentitu behar du min hori egiazkoa dela, eta zu alboan izango zarela”.

- **Amorrua:** Ongizatea oztopatzen duen horri aurre egitea du helburu. Energia suntsitzailea da, “eta horrelakoxea behar du izan, emozioak basatiak direlako”. Hala, adituaren gomendioz, amorrua kudeatzeko era osasuntsuena energia suntsitzaile hori sortzaile bihurtzean datza. Horregatik, energia hori ez erreprimitzea berebizikotzat du Apellanizek: “Modu osasuntsuan kanalizatu behar da, baina beharrezkoa da ateratzea, suntsitzailea delako”.
- **Poztasuna:** norbanakoa irekirik mantentzen duen emozio primario bakarra, onuragarria den zerbait jasotzean sentitzen dena. Energia handia eskatzen du, amorrurak bezala, “horregatik, maiz, eskutik helduta doaz eta modu berean kudeatzen ditugu”; alabaina, baina kasu honetan energia hori sortzailea da: “Energia honi bide eman behar zaio, eta gainezka egiten badu, kudeatzen lagundu behar zaie haurrei, oso biziak direlako”.

Haurrek garatzen duten adimen emozionalak zerikusia izango du inguruko helduek horiekin duten harremanarekin nahiz kudeaketarekin. Beraz, garrantzitsua da, adituaren aburuz, helduek sentitzen dituzten emozioak haurren parean ere azaltzea; muga lausoa da, baina. “Erakutsi, erakutsi behar zaizkie emozioak umeei, baina ezin zaie egotzi horien gaineko zaintza edo babesa, ez delako funtzionala, ez dagokiolako berari horren gaineko erantzukizuna”.

Beharrak

Emozioen eta beharren arteko lotura zuzenez ere jardun zen Apellaniz. “Gure bizkarrezurra dira premiak, gure ongizatea bermatzeko gako”. Halaber, unibertsalak direla gaineratu zuen, “eta ez daukate ez pertsona, ez ekintza, ez objektu, ez leku, ez momentu batekin harreman zuzenik”. Horien falta dagoenean, desorekatutik sentitzen da norbanakoa: komunikazioa, entzunak izatea, elikadura, ura, aisia, loa, adierazteko askatasuna, hurbiltasuna... “Zenbaitetan, umeez ez dakite nola adierazi beren beharra”, uste du terapeutak, “horregatik, hitzez haragoko bideak bermatu behar dizkiegu: marrazki bidez edo idatziak; horrela, lotura bat eraikitzen ikasiko du, sentitzen eta adierazten duen horren artean”.

Bi bide nagusi bereizi zituen adierazpenerako: hitza eta ekintza. Hori dela eta, emozioa izendatu behar da, lehenik, Apellanizen esanetan, haurrak jakin dezan zer den gertatzen ari zaiona, testuinguruan koka dezan. Jarraian, sentitzen utzi behar zaio, epaitu gabe. Eta behin, emozio horrek zer egin nahi duen ikusita, bideratzen lagundu behar zaio, ahalik eta modurik osasuntsuenean. “Ezinbestekoa da emozioei aitortza egitea, bestela, barruan gelditzen dira. Horien energia ez da sortzen eta desagertzen, transformatu egiten da”.

"ZAURI EMOZIONALEKIN GOAZ BIZITZATIK, ODOLUSTU EGITEN GARA"

Emozioei buruzko liburutegia



Koloretako munstroa.

Koloretako munstroa

Munstroak ez daki zer jazotzen zaion. Emozioek nahasi egin dute, eta, orain, nahasmena desegitea dagokio. Ipuin apala eta dibertigarria da, non emozioei buruzko lengoia lantzen den.



Emoziotegia.

Emoziotegia

"Esan zer sentitzen duzun" ibilbideko geltoki nagusia emozioen hiztegia da, Emoziotegia, zeinak berrogeita bi emozioen esanahia azaltzen baitu modu didaktiko, dibertigarri eta gozoan.



Liburua erdaraz dago, soilik.

Azukrezko eta eurizko errezeta

Errezetategiak bizitza koilakatutakoaz jateko balio du. Emozio ugari buruzko errezetak dakartza. Horrez gain, emozioen gotorlekuei eta ahozko zein ez-hitzeko lengoaiari buruz jarduten du, baita emozioen mapa bat eduki ere.

POSTONTZIA

LAB, ELA, SATSE, CCOO, UGT SINDIKATUAK

Otsailak 25 eta 28 greba egunak Osakidetzan

Osasun Sailaren immobilismoaren eta konponbide ezaren aurrean, otsailaren 25ean greba deitu dute ELA, SATSE, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek lehen arretan eta otsailaren 28an Osakidetzako esparru guztietan. Gainera, otsailaren 26an, manifestazioak egingo dituzte Bilbon, Gasteizen eta Donostian.

Urtarrilaren 23an egindako manifestazio jendetsuen ondoren, argi eta garbi esan dezakegu Osakidetzak eta Osasun Sailak ez dutela pauso bakar bat ere eman, eta ez dutela neurri bakar bat ere proposatu Osakidetzak dituen arazo larriak konpontzeko.

Zalantzarik gabe, mobilizazio horien jarraipen masiboa langileen eta herritarren nekearen isla da. Hala ere, Osasun Sailak bere bidea jarraitzea erabaki du, eta Osakidetzaren arazo larriari irtenbide bakar bat ere ez planteatzeaz gain, murrizketa gehiago abiarazi ditu, hala nola, Gasteizko Santiago Ospitaleko larrialdiak ixtea. Itxiera hori, gainera, pandemia betean murgilduta gaudenean egiten da.

Manifestaldiak eta gero, Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak adierazi zuen pandemiak eragindako behin-behineko egoera baten aurrean gaudela, eta Osasun Sailak kontratatutako borondatea duen arren, hori egiteko ezintasun materiala duela, ez baitago familiako medikurik, ezta pediatrarik ere. Esan behar da adierazpen horiek, errealitatea ez islatzeaz gain, Jaurlearitzaren erantzukizuna ezkutatu nahi dutela. COVID-19aren krisiak larriagotu egin du lehen ere gertatzen ari zen egiturazko egoera bat.

Zailtasunak daude kategoria batzuetako langileak kontratatutako, baina Osasun Sailak azken urteetan hartutako erabaki politikoen ondorio dira: alde batetik, 50



Sindikatuaren ordezkariak elkarrekin egin zuten agerraldia. ELA

urteko batez besteko adina duen plantillaren belaunaldi errelebo planifikatzeko erabateko falta egon da, non sistemari sartzeko direnak baino profesional gehiago erretiratu ari diren; eta, bestetik, Osakidetzak bere plantillari ematen dion txar sistematiakoaren ondorioz, langileek ihes egiten dute lehen arretarik arreta espezializatura, osasungintza pribatura, edota atzerrira. Datu gisa aipatu daiteke atzerrira lan egitera irteteko egokitasun ziurtagirien eskaerak gora egin dutela nabarmen; eta mugikortasun prozesuetan lehen arretan hutsik geratzen diren lanpostuen kopurua handitu egin dela ere.

Zoritzarrez, egoera hori ez da lehen arretan bakarrik gertatzen. Beste hainbeste gertatzen da arreta maila guztietan eta kategoria guztietan. Osakidetzak guztiok gara.

Horrez gain, lan gaitasun sistematiakoa, hobekuntza ikuspeirik eza eta baliabide eza ikusita, langile askok erretiroa hartzea erabakitzen dute aukera eduki bezain laster.

Horrela, lan zentroetan bizi den egoera gero eta prekarioagoa da. Osakidetzaren erantzuna da

propaganda egitea eta aitzakiak bilatzea, neurri bakar bat ere proposatu gabe eta aldarrikapen bakar bati erantzun gabe. Are gehiago, pandemia aitzakia ezin hobea bihurtu da murrizketa, desegite, prekarizazio, inbertsio falta, pribatizazio eta osasun publikoaren desegite politikekin aurrera jarraitzeko. Kolapso egoera eta osasun arreta jasotzeko zailtasunak agerikoak dira herritarren artean; paraleloki langileen nekea argi eta garbi islatzen da, bai azken asteetan deitutako mobilizazioen jarraipen masiboan, baita irekita dauden hainbat gatazketan ere: Lehen Arreta, TGEZ, Urdulizko Ospitalea, Txagorritxuko Larrialdi Pediatrikoak, Gurutzetako Larrialdiak, Santiago Ospitaleko Larrialdiak, Bizkaiko Osasun Sarea, Arabako Osasun Sareko sukaldea; Donostia Ospitaleko mantenua; Gurutzeta Ospitaleko mantenua; eta abar luze bat.

GREBA DEIALDIEZ GAIN MANIFESTAZIOA DEITU DUTE DONOSTIAN, HILAREN 26AN

Gure osasun-istema publikoa etengabeko eraso jasaten ari da, eta horrek aliantza bat eragin du osasun zentroetan zerbitzuak ematen dituzten eta herritarren artean, azken asteetan ikusi dugun bezala. Aliantza horrek jartzen ditu zalantzan EAJren gobernuaren osasun politikak.

Hori gutxi balitz, Osasun Saila Mahai Sektoriala edukiz husten joan da. Aspalidanik, informazioa emateko esparrua da hori; bertan ez da ezer negoziatzen, eta Osakidetzak inposatu egiten ditu bai landu beharreko gaiak, bai horien edukia. Hain da okerra egoera, Osakidetzak ez dituela betetzen, aldebakarrez, bertan hartutako akordioak. Sindikatuekiko elkarrizketa mespretxatzen du, gure osasun sistema publikoaren kudeatzaileen izaera antidemokratikoa gero eta larriagoa delarik.

Bi greba egun

Horregatik guztiagatik, egoeraren larritasuna ikusita eta Osakidetzaren immobilismoa ikusita, bi greba egun deitzea erabaki dugu:

- Otsailaren 25ean, lehen arretan.
- Otsailaren 28an, Osakidetzaren esparru guztietan.

Bi greba egun horiekin batera, manifestazioak egingo ditugu 3 hiriburuetan otsailaren 26an, larunbata, goizeko 12:00etan. Osakidetzako langileei ez ezik, herritarrei, gizarte mugimenduei eta gainerako erakundeei ere parte hartzeko deia egiten diegu, osasun publikoa, unibertsala, doakoa, kalitatezkoa eta herritar guztientzat irisgarria izango dena defendatzeko beharrezkoa den aliantza elikatzen jarraitzeko. Mahai Sektoriala osatzen dugun sindikatuok Osakidetzari eskatzen diegu jarrera erabat aldatzeko eta langileen aldarrikapenei

erantzuteko, gabezia horiek guztiak konpontzeko. Gainera, iragarri nahi dugu ez dugula berriro Mahai Sektorialean parte hartuko benetako negoziazioa eta edukiak planteatu arte.

Hauek dira Osakidetzak martxan jarri behar dituen aldarrikapenak:

- Osakidetzaren aurrekontua handitzea 2023. ekitaldirako, EBko batez bestekora iritsi arte (BPGren %7), horren %25 lehen arretara bideratuz.
- Plantillak egoki dimentsionatzea, milaka lanpostu sortuz, lan-kargak arrazionalizatzeko eta herritarrei kalitatezko arreta emateko.
- 24.600 langilek baino gehiagok pairatzen duten behin-behinekotasunarekin amaitzea, %8ra jaitsi arte, plantillak kontsolidatuz.
- Galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eta murrizketa guztiak lehengoratzeko, Garapen Profesionalean aplikatutakoa barne.
- EAGetan aplikatutako murrizketa guztien rebertsioa: berriro irekitzea edota arreta-ordutegiak berrezartzea.
- Kategoria guztietan, erretiroak, bakanteak, bajak eta bestelako absentsiak berehala, osorik eta lehen egunetik betetzea.
- Arrisku psikosozialak ebaluatzea eta neurri zuzentzaileak aplikatzea, arreta berezia jarriz lan-kargetan eta pandemiaren ondorioetan.
- Malgutasunerako edota lana eta familia bateragarri egiteko neurri eraginkor eta errealak.
- Irekita dauden gatazkak konpontzea: txanda osagarria, %4ko osagarria; osagarri espezifikoak eta Santiago Ospitaleko larrialdien itxiera.
- Plantillaren aurretiazko erretiroa erraztuko dituen neurriak.

OSTALARITZA

Andoaingo Kale Nagusiko Urkiola tabernaren berrabiatzea

Egun gutxiren bueltan atea berriro zabaldu dituzte, margotu berri eta kudeatzaile berriekin. Goizeko 06:00tarako zabalik izaten da Urkiola, langile askoren gosaltzeko taberna kuttuna izanik

Erredakzioa ANDOAIN

Vane eta Tati orain arteko zerbitzariak tabernaren kudeatzaile berriak bilakatu dira, Elixanek orain arte zituen ardurak utzi eta gero. Hainbat egunez itxita dute, jendaurrean margotu berri erakusteko. Funtsean, betiko taberna eta betiko zerbitzua izaten jarraituko du baina oraingoan zerbitzariak tabernaren kudeaketaz ere arduratuko dira.

Asteazken zehar, fin-fin, goizeko 06:00tarako zabalik izaten da Kale Nagusiko taberna. Pintxoak ez dira falta izaten, eta lehen orduan gosaltzeko langile askoren aukera izan ohi da Urkiola.

Vanek eta Tatik asmo horri eutsi nahi diote. Astelehenean gogo biziz zeudela erakutsi zuten, taberna berriro ireki berri. Zortetik onena hurrengo hilabeteetan!



Vane eta Tati, Urkiola tabernako kudeatzaile berriak. AIURRI

EFEMERIDEA

Txertota, 25 urtez kalitatea eskainiz

Andoaingo Goiburu auzoan dagoen jatetxeak urteurrena gogoan hartu du, bezeroei esker-ona adieraztearekin batera



Txertota jatetxea Goiburun dago. TXERTOTA

Erredakzioa ANDOAIN

1997ko otsailaren 7an ireki zituen atea Txertota jatetxeak. Aste honetan, efemeridea gogoan hartuta, zabalkunde handia izan duen mezua zabaldu zuten sare sozial ezberdinetan: "Ospakizun eguna da gaurkoa, Txertota Jatetxeak gaurko egunez duela 25 urte ireki baitzituen bere atea.

Bidea ez da erraza izan, zenbat jaki eta pertsona pasa diren gure etxetik. Ene bada!

Eskerrik asko, noizbait hamaiketako egitera, bazkaltzera, afaltzera edo zerbait hartzera hurbildu zaretzen guztioi.

Zuei esker gara eta guzti hau zuena ere bada".

Zorionak eta urte askotarako, Txertota!

Laguntza lerro ezberdinak ostalaritza-sektoreari

Sarean EUSKO JAURLARITZA

2020 eta 2022 urteen bitartean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, bere Erresistentzia-planaren bidez, 130 milioi euro bideratu ditu zuzenean ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduetara eta euskal turismo-enpresetara. Horietatik 102 milioi euro aparteko laguntzetan, 17 milioi euro baino gehiago laguntza arruntetan eta 11 milioi euro bonuen bidezko kontsumo-pizgarrietan. "Bultzada hori zuzenean sektoreetara iristen da, eta horri Jaurlaritza honen beste neurri ekonomiko batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola Lan eta Enplegu Sailaren aldi



Javier Hurtado. IREKIA

baterako enplegu-erregulazioko espedienteen osagarriak, Lanbideren laguntzak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren bidez Espainiako Gobernuak emandako funtsak, ostalaritza-sektoreari beste 45 milioi eman dizkionak, edo Elkargiren

finantzatzeko bidea, besteak beste", zehaztu du Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Javier Hurtado sailburuak.

Next Generation

Sailburuak, gogorarazi du dagoeneko lanean ari direla Europako deialdietan: "Funts horiei esker sail honen 2022rako aurrekontua 52,1 milioi eurotik 79,3 milioi eurora igarotzea ahalbidetzen da. Aurrekontu hori turismo, ostalaritza eta merkataritzako sektoreei laguntzeko da, tokiko garapena, helmugan lurralkohesioa sustatuz eta, horren bitartez, tokiko negozioak eta enpresak eta produktu berrien sorkuntzak bultzatzeko".



AIURRI

Egunean Behin lehiaketa

Egunean Behin lehiaketa martxan jarri da, eta lehen zozketaren irabazlea "Mirene Iraola" izan da. 232. postuan sailkatu zen, aste osoko partidak jokatu eta gero. Bera izan da zozketan irabazle. Zorionak! Mizpiradiko sagardoa eraman du etxera. Bitartean, lehiaketaren bigarren astea martxan dago. "Aiurri" taldeko kideei animoak, eta zortetik onena!



Osakidetzako instalakuntzak. IREKIA

Kasu larrienak jaisten ari dira, baina erritmo geldoan

Zainketa berezien unitateetako okupazioa eta heriotza-kopurua handi samarra da oraindik

Datuak

Heriotzak

2022/02/96	74
2022/01/30	75
2022/01/23	117
2022/01/16	78
2022/01/09	50
2022/01/02	35
2021/12/26	30
2021/12/19	38
2021/12/12	19
2021/12/05	19
2021/11/28	18
2021/11/21	5
2021/11/14	6

UCI-ZIUak

2022/02/06	91
2022/01/30	92
2022/01/23	112
2022/01/16	143
2022/01/09	142
2022/01/02	132
2021/12/26	110
2021/12/19	105
2021/12/12	91
2021/12/05	70
2021/11/28	47
2021/11/21	31
2021/11/14	30

*Iturria:
Osakidetza



Aurkezpen ekitaldia egin zuten, aurreko ostiralean. AJURRI

Piano jaialdia, prest

Larunbatean eta igandean, bostehun musikaritik gora igoko dira oholtzara. Euskal Herri osoan izena handia hartu du piano jaialdiak. Andoaindar eta urnietar musikari gazteak ez dira faltako

Erredakzioa ANDOAIN

Otsailaren 12-13an Basteron ospatuko da, eta bertan 6 eta 25 urte bitarteko 555 piano-jole

gazteek hartuko dute parte; Gipuzkoako 464, Bizkaiko 50 eta Nafarroako 41, hain zuzen. Bakarlari gisa ariko dira guztiak

ere, osasun egoerak behartuta. Berrikuntzen artean, Luis Fraca izeneko pianorako konposizio sari berezia nabarmendu behar

da. Jaialdiaren aurretik, otsailaren 10 eta 11n, maila handiko bi kontzertu eskainiko dira. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Txixtu Ruiz Andoaingo Udaleko kultura zinegotzia eta Myriam Ulanga, Ainhoa Aiertza eta Txixtu Kastro Deiadar elkarteak antolatzaileko kideak.

Aurkezpenean adierazi zuten, parte-hartzaileek askotariko estilo eta garaien 657 obra interpretatu beharko dituzte. Andoaindik 25 parte-hartzaile izango dira, Urnietatik, berriz, hiru. Berrikuntzen artean aipatzekoa da Andoaingo Bandako eta Musika eskolako zuzendari izan zen Luis Fraca izenarekin abian jarriko duten pianorako konposizio sari berezia.

Bi kontzertu, jaialdiaren atarian
Asteburuko jaialdiaren aurretik, bi kontzertu antolatu dituzte:

- Otsailaren 10ean, Basteroko ekitaldi aretoan (19:00), Joseba Korta eta Sarah Perarnaud piano jole gazteen errezitaldia. Euskadiko Musika Gazteen XIV. Lehiaketako irabazleak dira biak.
- Otsailaren 11n, Basteroko auditorioan (19:15), Francisco Escudero Kontserbatorioko orkestra sinfonikoaren kontzertua. Telmo Santos, Libe Azpiroz eta Martin Daly piano bakarlari gisa ariko dira. Guztiak ere Garikoitz Gonzalez zuzendaritzapean.



EH BILDU

EH Bilduren mahai politikoa

Eskarmentu handikoak eta kide berriak elkartu ditu EH Bilduk, "Andoainerako etorkizuneko proiektu bat landu eta eskaintzea" helburu. Tartean dira Joxean Barandiaran eta Ana Carrere alkate ohiak, Udal politikagintzan ibilbide luzea duten Ainara Rodriguez edota Esti Mujika, eta kide berriak: Aitor Ibarburen irakaslea edota Larraitz Arriola medikua.

"Garai berri baterako mahai politikoa" izenburupean, EH Bilduk bere asmoen berri eman du. Honako hauexek dira EH Bilduren mahai politikoa osatzen dutenak: Joxean Barandiaran, Ana Carrere, Garazi Usandizaga, Aitor Ibarburen, Larraitz Arriola, Andoni Alvarez, Xabier Fondon, Ainara Audikana, Eukene Villasante, Ainara Rodriguez, Jon Zulueta eta Esti Mujika.

Herritarren aurreko hitzorduak

"Andoain Elkarlanean" herritarren partaidetzarako dinamika asteartean abiatu zen, eta denera sei bilera antolatu ditu Andoaingo Udalak. Aste honetan hiru burutzekoak dira, eta datorren astean beste hiru gehiago



Gobernu taldeko kideak, bileraren hasieran. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2020ko egitasmoa berreskuratu du Gobernu taldeak. Maider Lainezek aurkezpenean adierazi zuenez, hiru helburu nagusi-ekin: Udal aurrekontuko proposamen nagusiak partekatzea, hartuko dituzten konpromisoak jakinaraztea eta Udal gobernu-ko jardunaren betetze-mailari buruzko azalpenak ematea.

Bileraren zati handia Udal aurrekontua aurkeztera bideratu zen. Berrogeita hamar minutu inguru izan ziren, eta denbora tarte horretan sailez sail partida garrantzitsuenak aurkeztu zituzten. Ordu erdia igaro zenean lehen lerroan eserita zegoen emakume batek udal ordezkarien aurkezpena eten egin zuen, auzoko arazoengatik hitz egiten hasteko erregutuz. Kexu agertu zen: Karrikan arazoak daudela, puntu beltzak daudela eta oro har udalerrian trafikokoak sortzen duen soinua saihesteko panel akustikoen arrastorik ikusten ez zuela. Gobernu taldeak aurrekontuen azalpenarekin jarraitu zuen eta 19:20ak zirenean, herritarrak hitza hartzen hasi

ziren. Karrika eta Etxeberrietako bizilagun batzuk hitza hartu zuten, eta kexa handiena eragin zuena Algodonerako emakumeen plazaren atzealdeko gunearen egoera izan zen. Amaitu gabeko hirigintza lana da, zeinean lurrazpian garaje solte batzuk dauden. Eta inguruan urte luzez egoera beretsuan dagoen behin-behineko hesitura. Arriskutsua dela adierazi zuen, batek baino gehiagok.

Karrikan ibilgailuek hartzen duten abiadura handia hizpide izan zuten, eta Udalaren aldetik adierazi zuten abiadura murrizteko koskatxoak jarriko dituzte berandu baino lehen.

Aita Larramendi kalearen atzealdeak eta Etxeberrietako etxe zaharrek zeresana eman zuten. Hiru auzotar ezberdinek hitza hartu zuten gai hori berari buruz iritzia emateko. Elkarbizitzari eta garbitasunari loturiko hainbat kexa azalerazi zituzten. Eusko Jaurlaritzarekin batera gaia bideratzen ari direla adierazi zuen Gobernu taldeak.

Lehen bilera horretan Aiztondo, Karrika, Martin Ugalde,

Etxeberrietako eta Aita Larramendi kaleetako bizilagunak deituta zeuden. Udal Gobernu taldeko kide gehienak hurbildu ziren: PSE-EEren aldetik, Maider Lainez alkatea eta Jose Luis Verdasco eta Petri Romero zinegotziak. EAJ-PNVren aldetik Mari Jose Izagirre alkate-ordea eta Txitxu Ruiz, Imanol Goena eta Alex Huitzi zinegotziak.

Ikusleen artean EH Bilduko hiru zinegotzi zeuden: Esti Mujika, Garazi Usandizaga eta Julian Lopez. Herritarren partaidetzarako dinamika lehen bileran hogeita lagun elkartu ziren.

Datorren asteko bilerak

- **Otsailak 14, astelehena:** Calonge, Sorabilla, Goiburu, Buruntza, Leizotz. 18:30, Pleno aretoa.
- **Otsailak 15, asteartea:** Kale Berria, Zumea, Olagain, Aingurasutegi, Belabi, Txitibar. 18:30, Basetero.
- **Otsailak 16, asteazkena:** Rikardo Arregi, Bazkardo, Ama Kandida, Kaletxiki, Manuel Lekua, Arantzibia. 18:30, Aita Larramendi ikastola (Rikardo Arregi Kalea).



Astearteko omenaldia alderdi sozialistak antolatu zuen. AIURRI

"Ez zen inor hil behar desberdin pentsatzeagatik"

Andoaingo sozialistek gogoan hartu zuten Joseba Pagaza, ETak hil zuela hemeretzi urte bete zirenean

Erredakzioa ANDOAIN

Joseba Pagazaurtundua memoria aldarrikatu zuten, baita beste biktimena ere. "Ez zen inor hil behar desberdin pentsatzeagatik eta askatasuna defendatzeagatik", adierazi zuen Maider Lainezek. Etorkizunera begira, giltzarritzat jo zuen biktimen oroimena bizirik mantendu beharra. Bereziki gazteen artean: "Terrorismoaren biktimen memoria bizirik mantendu behar dugu gazteengan. Ez dugu beldurrik izan behar gure gazteek hemen gertatu dena ezagutu dezaten".

Indarkeriaren erabileraren zentzugabetasuna

"Esan gabe doa indarkeriak ez duela inoiz zentzurik, ezta justifikaziorik ere. Zuegatik bizikidetzan lan egiten jarraituko dugu egia ez ezik, justizia eta erreparazioa ere oinarri hartu-

ta, baina iragana oroimenarekin gogoraturik".

Estanis Amutxastegi, Jose Luis Vela edota Daniel Garcia Andoaingo alderdikideak, Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia eta Guillermo Echenique Espainiako Gobernuaren ordezkari-ordea hurbildu ziren ekitaldira. Petri Romero, Jose Luis Verdasco eta Ascen Parron Andoaingo PSE-EEko zinegotziek ekitaldian parte hartu zuten. Baita Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos Urrietako sozialistek ere. Haien alboan beste hainbat ezagun, tartean Asun Guerra Andoaingo eta Urrietako PPko zinegotzi ohia. Minutuko isilunea eta gero, txalo artean amaitu zen ekitaldia.

ETak bere gain hartu zuen Joseba Pagazaurtundua Ruizen aurkako atentatua, 2003ko otsailaren 9an izan zena.



Amutxastegi eta Echenique hizketan, Asensio alboan dagoela. AIURRI



Ibon Peñagarikano eta Izaskun Aizpurua, Sabordegi baserrian. AIURRI

"Esne abeltzaintza desagertze bidean da, eta azkar"

IZASKUN AIZPURUA, IBON PEÑAGARIKANO URNIETAKO SABORDEGI BASERRIA

Itota daude, ezinean; 0,41 xentimo balio du esne litroa ekoizteak, eta 0,36 jasotzen dute salmentagatik; "esnari benetan daukan balioa ematea eskatzen dugu, bestela, akabo!"

Andoni Urbistondo URNIETA

Astearte goiza lainoan esnatu da Sabordegi baserriko parajeetan, Urnietan. Izaskun Aizpurua eta Ibon Peñagarikano bizi dira bertan. Goizeko 06:00retan hasi dira egurrean, behiak jezten, azken bi hamarkadatan ia eguneroko egin duten bezala, eta tartetxo bat hartu dute Aiurri-ri bizi duten errealtate gordina kontatzeko.

Ibon, 51 urte dituzu, zuk Izaskun 49. Sabordegi baserrian jaiotakoa bata, oiarzuarra bestea.

Ibon Peñagarikano: Bai. Biok ikasi eta baserrikan kanpo lana egindakoak gara, gaztetan, baina baserrira bueltatu ginen. Pixkanaka trebatu ginen, inbertsioak egin, eta gaur arte. Nire kasuan hiru hamarkada bete-

"SUPERMERKATURA JOAN ETA ZURE ESNEA HAIN MERKE IKUSTEAK MIN HANDIA EMATEN DIT"

tzera noa baserrian. Gustuko lana zen, txikitatik baserrian ikusitakoa, eta horregatik bueltatu nintzen.

Izaskun Aizpurua: Ni ere baserrikoa naiz, duela 20 urte etorri nintzen Sabordegira bizitzera, eta lan egitera. Gure baserrian, Oiarztunen, 8-10 behi geneuzkan.

Zenbat behi dituzue etxaldean, egun?
I.P.: Gaur 105 jetzi ditugu. Denera, 260 bat buru edo izango dira. Familia-ustiaketa da gurea. Langile bat dugu, eta semeek ere tarteka laguntzen digute.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

I.A.: Goizeko 06:00retan hasten gara eguneroko, behiak jezten. Gero jana eman, garbitasuna, txekor txikiei esnea eman... Hori da goizeko lana. Eta arratseko 06:00retan, gauza bera. Kanpoko lanak daude, uda partean batez ere, belarra biltzen-eta. Lan handia ematen digu horrek. **Behin entzun nion baserri bati, baserrian beti dagoela zereginen bat.**

I.P.: Hala da, bai. Guardian ere ordu asko ematen ditugu. Orain guardian egote hori saritu egiten da, gure kasuan izan ezik. Urtero 130 bat behi umatzen dira, beti dago bururen bat bereziki zaindu behar duzuna... Gaez aritzen gara, egunez... Honek ez du etenik. Ondo bizi garen ez dakit. Gustura bai.

Egun bakar bateko atsedena hartu ezin, eta hala ere gustura bizi zarete.

I.A.: Geuk ere hartu izan ditugu astebetexoko etenak. Baserrikan martxa eginda, ze hemen gertatzen bazara, lana egiten duzu. Astebururik ez dugu gurean, semeek laguntza ematea eta gu biok lasaixeago ibiltzea, hori gure asteburu-erretako saria.

Bideragarria al da, ekonomikoki, familia negozioa?

I.P.: Gaur egun, ez. Beti erakutsi izan digute orduan eta abere gehiago jarri, negozioa bazela, gastu finkoak berberak direlako. Leloa ezaguna da: Behi gehiago, esne gehixeago, bideragarri izateko. Gu orain gauden puntuan, ordea, ezin dugu negozioa gehiago handitu dagoeneko. Irteerarik ikusten ez diogun egoeran gaude, egoera kritikoa da.

Urnietan 80 esne abeltzaintza ustiaketa zeuden iraganean. Egun lau baino ez, datu latza.

I.P.: Bai, baina behi kopurua berbera da. Esan nahi dut, lehen 80 esne baserri ginen herrian, eta hainbeste behi, gehienak hiru edo lau behirekin. Baserri asko behi kopuru apalarekin. Orain lau baserri gaude, 80 baserri horietan zeuden behi kopuru berarekin.

Zergatik da bizi duzuen egoera hain kritikoa?

"IRTEERARIK IKUSTEN EZ DIOGUN EGOERAN GAUDE. EGOERA KRITIKOA DA"

I.P.: Bada, esne litro bakoitza ekoizteak 0,41 edo 0,42 xentimo balio duelako, eta saltzen dugun esne litro bakoitzagatik 0,34-0,36 xentimo artean ordaintzen ditugutelako.

Nola da posible hori?

I.P.: Esne sektoreak inguruan egitura handia du, jende asko bizi da esnearen inguruan. Funtzionario asko, maila komertzialean ere langile piloa. Zergatik? Oinarritzko elikagaia delako. Esnea da, gizakiak hori bakarrik kontsumituz gero, bizi iraun dezakeen produktu bakarra. Ez dago beste produkturik. Baina ez da baloratzen. Zernahi gauza baloratzen da gehiago, egungo jendartean, esnea baino gehiago: sakelakoa, jantziak, itxura, mila gauza...

Ekoizpena salmenta baino garestiagoa izatea zer da, oraingo egoera, edo aspaldikoa?

I.P.: Esne litroak, orain 30 urte, 0,31 balio zuen. Orain dela hilabete bezala. Pentsa... Esan ziguten, baserrikan lehiakorrak izan behar genuela. Ikasi genuen, atzerrira joan ginen ikastera. Tresneria berria jarri dugu, instalakuntzak hobetu, arautegi eta baimen guztiak bete, zeregin konplexua azken hori: aberearen ongizatea, ingurugiroko baimenak, esnearen kalitatea... Baserrikan egin da trebatu, asko, eta Urnietan, Gipuzkoan ekoizten den esnea baino hobeagorik ez dago inon munduan. Exijentzia izugarria baita. Trebatze horrek kostu bat izan du, eta esnearen prezioa orain dela 30 urteko berbera bada... Lehiakorrak gara, behiek esne gehiago ematen dute, genetikoki ere hobeak dira zezanak, behiak... baina guzti horrek dirua balio du. Ezin dugu gehiago hobetu, esne gehiago lortu. Puntu horretan gaude.

Eta zergatik balio du hain gutxi esne litroak? Norena da errua?

I.A.: Guk kalitate oneko esnea ekoizten dugu, baina zer pasatzen da esne horrekin behin gure baserrikan irtetzen denean? Kanean edaten dudana esnea, eta baserrian edaten dudana ez da berbera. Zer pasatzen da esnearekin baserrikan kalera doan tarte horretan? Supermerkatura joan eta zure esnea hain merke ikustek min handia ematen dit niri. Oso esne ona ekoizti dudala uste baitut.

I.P.: Jendeak nahi du esnea merke, ez esne ona. Gero esneak



"Sei xentimo galtzen ari gara litroko gaur egun, eta eguneko 3.500 litro esne ekoizten ditugu, 34 bat litro behiko. Hori epe jakin batean jasan dezakezu, prezioak ere asko aldatzen direlako. Orain, ordea, erregaia, pentsua, argi indarra, dena garestitu da ikaragarri". AIURRI

eta esneak daude. Gu Kaiku kooperatibako kide gara, eta badakigu esne on bat ekoizten dela. Kanpotik ere esne asko ekartzen da, makro etxalde handietatik. Supermerkatura gure esnea iritsiko da, baina beste esne asko ere bai, eta denek izen bera dute: esnea. Supermerkaturaren prezio askoko esneak topatuko dituzu, baina zein erosi du jendeak? Merkeena. Guk merkeago ezin dugu ekoiztu. Sei xentimo galtzen ari gara litroko gaur egun, eta eguneko 3.500 litro esne ekoizten ditugu, 34 bat litro behiko. Hori epe jakin batean jasan dezakezu, prezioak ere asko aldatzen direlako. Orain, ordea, erregaia, pentsua, argi indarra, dena garestitu da ikaragarri.

Nork erabakitzen du zenbat balio duen esne-litroak?

I.A.: Supermerkatu handiek.

I.P.: Gure inguruan, Urnietan eta Beterrri eskualdean, entzuten dut, jendeak egiten duela herriko, bertako produktuak kontsumitzeko aldarria. Aintzat hartzen omen gaituzte baserriarrak, baina gero eskualdea supermerkatu handiz josia daukagu. Andoainen, Hernanin... Zer pasatzen ari da? Hernanin sortu da bertako baserriko produktuak saltzeko proiektu majoa, eta hori bultzatzen dute erakundeek,

baina supermerkatu handiak ere bai. Denda txikietara joaten naiz, eta ez dut jendea erosketara bidean. Gauza puntualak erosi, bai, baina erosketak handiak supermerkatuan egiten dira. Supermerkaturaren, noski, posible da baserriko produktuak erostea, baina zer egiten da supermerkatuan? Produktu merkeena erosi.

Beste herrialde batzuetan balioa eman zaio esnari, kostu balioa salmenta balioaren gaineratik egon denean, Gobernuak esku hartu dute, eta egoerari irtenbidea eman, Alemaniari, adibidez. Espainian ez. Zergatik?

I.A.: Gurean, Euskal Herrian eta Espainian, Europako esnerik merkeena dago. Supermerkatu handien presioagatik. Esneak ere aurkariak izan ditu, kolesterola sortzen zuela zioten medikuak eta beste... Orain, aldiz, ona omen da esne kontsumoa.

Nola eutsi, egoera kritikoa honetan? I.P.: Ba ez dakit, baina egoera iraultzen ez bada, azkar esne

"MARTXA HONETAN JARRAITUZ GERO BUKATU EGINGO DA EUSKAL HERRIKO ESNE ABELTZAINZA"

abeltzaintza historia izango da, belaunaldi berriek museo batean bakarrik ikusi ahalko duten ustiaketa modua. Oraingo martxan, esne abeltzaintza desagertu egingo da, eta azkar.

Bueltarik ba al du egoerak, zuen ustez?

I.A.: Egoera buelta ez izatetik oso gertu dago. Aspalditik heldu da, ikusten zen egoera honetara iritsiko ginela. Egunero lanean, iritsi ezin, estres batean sartuta... Noiz arte? Bizi ere egin beharko dugu apurtxo bat ez? Estutu, estutu, eta ezin iritsi, ezinezkoa da.

I.P.: Martxa honetan bukatu egingo da Euskal Herriko esne abeltzaintza. Ezin baitugu makro etxaldeekin lehiatu. Hemen ditugun belazeak ditugu, orografia menditsua da, eta hemen ekoiztea asko kostatzen da. Asko. Langileei ere hemengo soldata eman behar zaio, ez Gaztela-Leongoa.

Larrialdi dei gordina egiten ari zarete.

I.P.: Bai, eta ez dakit jendarteak gure negozioak ixteak zer ekarriko duen ikusten duen. Gu gabe mendia zikindu egingo da azkar.

Zuen tankerako beste negozio batzuk salmenta zuzena lehenetsi dute, herriko merkatuetan, etxetako banaketarekin, edo herrietan

esne botila salmenta makinekin. Halakorik pentsatu al duzue zuek?

I.P.: Ez, eta arrazoia sinplea da. Buelta batzuk eman dizkiogu kontu honi, Urnietan edo Hernanin makina batzuk jartzeko. Batzuk egiten dute. Gu kooperatiba bateko kideak gara, eta denok ezin dugu hori egin. Denok hala funtzionatuko bagenu elkarri kalte egingo genioke, merkatu hori mugatua baita. Bezeroaren fideltasuna lortzea ere ez da samurra.

I.A.: Azkenean berriro supermerkatu bueltatzen gara. Denok gabilta korrika, denok dugu denbora gutxi supermerkatu-ti-ta batean joan eta erosketak egiteko.

Politikariei, agente-makila dutenei, zein mezu emango zenieke? Nork dauka erantzukizun gehien?

I.P.: Legeak idatziak daude. Ezin da ordaindu produktu bat kostatzen dena baino prezio baxuagoan. Esnearekin gertatzen da, eta salaketa egin dugu, egin behar zen tokian. Ez zaigu jaramonik egin. Gobernutik esan

"GU GABE, ABELTZAINZARIK GABE, MENDIA ZIKINDU EGINGO DA AZKAR"

zaigu lanean ari direla, konponbideak bilatzen... Ez da ezer egiten. Esnea da igo ez den produktu bakarra. Ogia igo da, erregaia, egunkaria... dena igo da. Esnea ez.

Politikariek kontziente al dira, larrialdi mezua ematen duzuenean?

I.A.: Ezezkoan nago. Bestela, zerbait egin beharko lukete, ezta?

I.P.: Nire ustez, kontziente dira, baina zera pentsatzen dute: 'ez dira negozioa ixten ausartuko'. Garen bezalakoak gara, lana egin dugu lehertu arte, eta segi, dirua galduta ere. Behiak gure soldata edo aurrezkiekin elikatzen ari gara, eta hori ezinezkoa da. Baserriaren historiak dio irautea izan dela gure patua, baina familia bera ezin duzu zulora eramanez. Bankuen konfiantza ere ez da mugagabea, eta ogi kozkor bat jateko hainbeste sufritzea ere...

Okerrean pentsatu al duzue? Alegia, baserriko negozioa utzi eta beste lanen bat bilatzea?

I.P.: Pena handia emango liguke. Bizitza guztia horretan aritu eta utzi beharra ere... Iristen bada, iritsiko da, baina ezin dugu egoera horretan pentsatu. Oso harro baikaude egiten dugunarekin. Beti daukagu egoera aldatzeko esperantza, politikariei neurriak noiz hartu, gizartea noiz hasiko ote den gure produktua behar den moduan baloratzen. Gu jendartearen mesedean aritzen gara, esnea ekoiztuz. Irudipena daukat gizartea San Tomas egunean bakarrik gogoratzen dela baserriarrarekin, eta gu hemen ari gara beste egun guztietan. Baserriak asko eman dio herriari, Euskal Herriko ikur izan da, euskararen zaindaria, kulturaliki giltzarri, eta bukatzen ari da. Urnietan lau esne ustiaketa negozio daude. Sektoreko lantegi garrantzitsueneko egoitza nagusia herrian dugu, Iparlat. Iparlat, zergetan, diru asko uzten du Udaletxean, urteko aurrekontuaren hirutik bat. 200 langile baino gehiagok aberastasuna sortzen dute, eta horrekin kiroldegia egiten da, errepideak... Alegia, baserriak ematen dio jendarteari. Jendarteak ematen al dio baserriari bueltan? Susmoa daukat jendea gurekin belazeak ongarritu eta usain txarra sortzen denean bakarrik gogoratzen dela. Eta ez naiz diru-laguntzak eskatzen ari, egiten dugunagatik salneurri justu bat ordaintzea baizik.

POSTONTZIA

ENEKO EGIBAR ARTOLA ALBAITARIA ETA POLITOLOGOA

Makroukuiluetatik Europako diru-funtsetara

Orain dela aste batzuk piztu zen eztabaida Espainiako Estatuan Garzon ministroak eginiko adierazpen batzuegatik. Aste honetan Lorca herrian (Murtzia) ganaduzaleak udaletxean sartu dira, horren kontra PP eta Vox alderdiek ganaduzaleen artean bultzatutako protesta dela eta. Estatuan, eta Euskal Herrian ere bai, politikariak lehen sektorerara hurbildu dira eta beraien irudiak eta argazkiak ikusi ditugu, bai telebistan, bai komunikabide desberdinetan.

Orain dela 21 urte, behi zoroen (BSE) gaixotasunaren aurrean, orduko Arias Cañete ministroaren erantzun politikoa txuletoiak jatearena izan zen eta, noski, irudi haiek guztiok ikusi genituen telebistan. Baita hiltegiatan zenbat behiren buru analizatzen ziren, zenbat kontrol egiten ziren... maiz entzuten genuen informazioa zen; denbora luzez entzuten egon ginen informazio zehatza eta xehea.

Baina, ez orduan, ezta orain ere, politikatik ez dira gauzak ausardiaz aztertu eta informatu. Duela 21 urte ez zen argitu, adibidez, nahiz eta orduan ere legez kanpo egon animalien hondakinak abelgorrien gizenketan erabiltzea, pentsu etxeetan zergatik zen orokorra praktika hori. Ez zen azaldu gizenketa eredu horiek eta pentsu etxeek, kasu askotan, urte batzuk arinago Europako diru-laguntzen sostengua izan zutela. Ez zen azaldu horrelako "eskandalu" baten aurrean, ez politikak, ez justiziak, apenas ez zuela inor epaile baten aurrean jarri. Ez zen argitu -kuriostatez bada ere- Europako okelaren merkatuan, horrenbeste subentzionatutako abelgorri pila erretiratu ondoren, (milioika tona eta kanal erre ziren), merkatuan ez zela



Betizuak larrean, Adarramendi eta Aballarri inguruan. AIURRI

inongo faltarik, ez prezio orekarik somatu, ez eta...

Oraingoan ere, 21 urte beranduago, ez da esplikatzen nolatan agertu diren makroukuiluak eta antzeko ereduak; badirudi zerutik etorriak direla. Estatuak, Europako diru-laguntzek, politikak eta politikariek ez dute zerikusirik produkzio-sistema eta eredu horiekin? Ez da azaldu ere Estatuko nekazaritza alorreko Luis Planas ministroak eta Nekazaritza Ministerioak azken urte hauetan nola Estatuan ganaduzaleak animatu dituzten tamaina handiko ukuilu horiek ipintzen, ondoren Txinatarrei merkatu global horretan txerriak saltzeko. Aldiz, informazio gabezia honetan, Estatuko gobernuko ministro batek lehen sektorean

"gogoeta" eskatu duenean Nazio Batuen GIH-2030 testuinguruan, bada... Badugu betiko politikaren erantzuna: espektakulua. Lotsa gutxiz, politikarien eta abelgorrien argazkiak, irudiak ikusi ditugu nonahi.

Izan ere, azken urteetan, politikak orokorrean ez dio minutu eta gogoeta gehiegi eskaini lehen sektoreari, ez Legebiltzarreko eztabaida orokorretan, ezta Kongresuko nazio eztabaida deitzen diren horietan ere. Ez eta, adibidez, Europako hauteskundetan alderdien programetan

"POLITIKAK OROKORREAN EZ DIO MINUTU ETA GOGOETA GEHIEGI ESKAINI LEHEN SEKTOREARI"

Europako Nekazaritza Politika Erkideaz (PAC) proposamenak egiten, ez... Kontrara, politika ofizialaren erantzuna zein izan da? Lehen, ministro txuletoi jalearena, eta oraingoan, politikari cowboyen argazkiak plazaratzearena.

Lehen sektorean gogoetetan sakontzea Euskal Herrian ere nahitaez egin beharrekoa dela deritzot. Euskal Herriko lehen sektorea desberdina dela esaten badugu, gurea nekazaritza familiarra dela esaten badugu, desberdindu izan dugu eredu hori merkatu orokorrean? Zein dinamika erabili dugu eredu desberdinak merkatuetan bereizteko, ukuiluetan bereizteko eta batez ere kontsumitzaileei begira bereizteko? Ekoizpen estentsiboa bultzatu dugu Euskal Herrian? Euskal

Herrian posible izango da Estatuan elkarte asko eskatzen ari diren estentsiboa desberdintzeko zigilu hori martxan ipintzea?

Zertifikazioak, kontrolak, akreditazioak, legediak... Ez dira makroukuiluek beren eredu babesteko orain dela aste gutxi erabili dituzten hitzak? Eta, guk ez dizkiogu hitz berberak (kontrola, legedia...) bertoko produkzioari erantsi eta kontzeptu nagusi bezala erabili azken urte hauetan? Guk zein "bide" erabili dugu "gurea" babesteko eta bultzatzeko? Ez gara aritu bestearren hizkuntzarekin gurea babestu nahian? Zein hiltegi eredu bultzatu eta bultzatzen ari gara Euskal Herrian?... Baserritarrari lagundu diogu estentsiboarena merkatuan islatzen? Baloratu

eta desberdindu izan dugu abelgorrien kanalean, adibidez, estentsiboa, amaren esnea, giltzurriarena, berdea jatearena... Kanalei prezioa ipintzeko momentuan? Abelgorrien prezioen eredua, gehienbat konformazioa baloratuz, ez digu guri Binefarko lonjak ezarri? Eta Binefarkoa ez da azken hamarkadetan makro-ukuiluen sintonia berdinean aritu den makrohiltzi bat?... Ez al dugu azeria oilategia zaintzen ipini?

Nire iritzian, lehenik, bertoko kalitatea prezio duinean ordaintzean hasten da guztia: jasagarritasuna, klima aldaketaren kontzientzia, lehen sektorearen iraupena eta baita nekazaritza familiarraren babes ere. Duela 21 urteko txuletoiaren irudiek, egungo politikarien argazkiek edota Europan animalien ongizate eta digitalizatorako diru funtsek, seguruenik, orain ere ez diote produkzio estentsiboari eta familia-nekazaritzari merkatuetan bereizten lagunduko.

Bigarrenik, iruditzen zait XXI. mendean elikagaiak balio eta mezu sozialei lotzea izango dela modurik egokiena produkzio-sistema jakin baten eta familia-nekazaritzaren alde aritzeko. Eta ez naiz ari diru-laguntzez (Europako diru funtsen 100 milioiez), ekonomian eta merkatuan beste modu eta bide batzuei atea irekitzeaz ari naiz. Horixe izango baita, benetan, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GIH) sinestea.

Eta, azkenik, makroukuiuen aferak berriro ere honako errealitate hau erakusten digu: gaur egun merkatu globalean funtzionatzen duten eredu eta interes oso urrun daudela gizartearengandik eta interes politiko kolektiboengandik. Baina, beste irakurketa eta ikasgai bat ere badu, nire ustez, makroukuiuen aferak: elikagaien munduan makro mezuak oso ahulak direla eta betiko sistema politiko eta ekonomikoaren babes behar dutela ekonomian sustengatzeko; eta ekonomian aldaketak sustatzeko mikrotik hasi behar dela lanean eta



Eneko Egibar Artola andoaindarra albaitaria eta politologoa da. AIURRI

horrek eragin zuzena duela eta izango duela etorkizunean ere lehen sektoreko ekonomietan.

Bestalde, Euskal Herrian trantsizio garaian ohikoak ziren udaletxeetan baserriarren komisiok, baserriarren zinegotzi eta ordezkariak... Denborarekin, baina, desagertzen joan dira politika eta lehen sektorearen arteko lotura horiek. Politika lokala urruntzen joan da lehen sektoretik eta, zer esanik ere ez, merkatutik. Atzerapauso itzelak eman dira alor horietan, adibidez, gogoratzea besterik ez dago orain dela ez denbora asko udaletxeak zirela hiltzearen eskaintzen zuten entitateak Euskal Herrian. Zergatik izango ote zen? Eta orain zer egingo dugu politika lokaletik lehen sektoreari etorkizunean laguntzeko? Atzera begiratu beharra dago gertatutakoa ulertzeko, baina aurrera begiratu beharra dago etorkizunean baitago guztiaren gako. Nola lagunduko diogu lehen sektoreari?

Uste dut Nazio Batuen 2030eko Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) aukera itzela direla Andoain, Urnieta, Asteasu, Aduna, Amasa-Villabona, Larraul, Zizurkil bezalako udaletxeentzako, hau da, aukera ederra lehen sektorearekin elkarlanean aritzeko. Euskal Herriak lehen sektorea behar du, eta hein berean behar du lehen sektore hori Andoainek, Asteasuk... Eta Asteasun ekoizten dena Andoaingo eskola eta ikastoleto jantokietan, dendetan eta abar salduko eta merkaturatuko

balitz? Agian, oraintxe da momentu aproposa proiektu kolektiboetan oinarrituz eta elkarlanean arituz enpresa berri eta errentagarriak sortu eta etorkizuneko proiektuak bermatzeko. Hots, beste eredu ekonomiko batzuei atea irekiko dizkioten bideak martxan ipintzeko. Klima aldaketari erantzuna eman eta Nazio Batuen GIHekin bat etorriko diren proiektuak. Gainera, euskara bera, Larramendi Kultur Bazkuna eta Aiurri bezalako proiektuak bisio eta enpresa berri horietara batu daitezke; dagoeneko elikagaien merkatuan bisio berriekin erantzuten ari diren modura, adibidez, Nafarroan Errigora proiektua, Orona enpresa Hernanin...

Bukatzeke, Garzon ministroak abiatu duen abeltzaintza estentsiboaren debateak zerikusituz mundu globalean elikagaien merkatuan agintzen dagoenarekin. Francisco aita santuak ere askotan aipatzen du munduan zehar toki askotan jasaten duten gosearekin amaitzeko, elikagaien merkatu globalak ezin duela horrela jarraitu. Bada, betiko merkatu eta interes horiek Euskal Herrian ere ezin dute horrela jarraitu. Nire iritziz, mikrotik eragiten diren aldaketak eta martxan ipintzen diren eredu berriak izango dira gako etorkizunean aldaketa horiek sustatzeko.

Eta Aiztondok eta Buruntzaldeak pausok aurrera eman eta etorkizuneko ekonomian eta merkatuan aritzeko bide berriei atea irekitzen badizkiete?

Egunean eguneko albisteak sarean



"Otso Beltza" kantua, Santa Ageda bezpean



"Kui kui" pailazoen ikuskizuna



Sabordegi baserriko elkarriketa



Egunean Behin: Mizpiradi Sagardotegiaren babesarekin

POSTONTZIA

BIZILAGUN TALDEA URNIETA

Bizilagunon kexa

Azken hilabete hauetan, goizeko 06:30ean hasita astelehenetik larunbatera, Zabaleta kaleko bizilagunok etengabeko kamioi eta trailer fluxua jasaten ari gara, bibrazio, kutsadura, soinu eta trafiko trabak sortuz, besteak beste.

Arazo hauek areagotu egiten dira kontuan edukita igarotzen duten bidea ez dagoela halako ibilgailuak jasateko prest. Izan ere, bide estua, aldapan eta kurba itxian dago. Horren ondorioz, soilik kamioi batek errepide osoko trafikoa eteten du, kontrako erreia guztiz behar baitu igaro ahal izateko.

Bestalde, ingurune obretako lurak daramatzaten ibilgailuek, kale, eraikin eta gunean aparkatutako autoen hondatze goiztiarra eragiten

dute, sortutako kutsadura, soinu eta bibrazioez gain.

Azkenik, bide honen ingurunean haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat aurkitzen da, errepidea gurutzatu behar duten familia ugariarentzat arrisku bat suposatuz.

Aipatu beharra dago, Oztaran aldetik herrira sartzean, 10t baino gehiagoko kamioien zirkulazioa debekatzen duen trafiko seinale bat dagoela, baimenduak izan ezik. Hala ere, antza denez, errealitatean ez da adierazita ikusten.

Idatzi honen bidez, auzoko bizilagunek, egoera jasangaitz honen aurreko kexa aurkezten dugu eta arazoari konponbide bat jartzea eskatzen dugu.



Asteburuan itxita izango da. UDALA

Eraberritze lanek egunerokoan eragingo dute

Garratzako bidea itxita egongo da astebetetz, Babiloniko urbanizazio lanengatik

Erredakzioa URNIETA

Babilonia eremua urbanizatzeko lanak medio, Garratzako errepidea eta Lizardi 1-3 aurreko aparkalekuak itxita egongo dira, datorren astelehenera bitarte. Bestalde, aste honetan, Arantzubiko biribilgunearen egoera hobetzeko asmoz asfaltatze lanak egiten aritu dira. Lanek iraun bitartean Erratzuko zubitik Arantzubiko biribilgunera doan errepidea moztuta egongo da. Azkenik, San Juan plazatik Lekaiaora doan espaloia zabaldu egin dute, eremu horretako irisgarritasuna hobetuz. Udalak adierazi duenez, "aurreko urteetako parte hartze prozesuetan herritarrek eskaturiko hobekuntzetako bat da".



Espaloia zabaldu dute. UDALA



Edurne Gallo Berdintasun teknikaria, Beatriz Arrizabalaga Elhuyarrekordezkarria, Jorge Segurado alkatea eta Luke Goñi Berdintasun saileko zinegotzia. UDALA

Udalerrian eta herritarrengan eragin nahi duen plana

Urnietako Udalak hirugarren Berdintasun Plana aurkeztu du, 2025era arte indarrean izango dena

Erredakzioa URNIETA

Planaren garapena Elhuyarren aholkularitzapean egin da. Bada funtsezkoa den elementua: dinamika parte hartzailea izatea. Luke Goñi Urnietako Udaleko Berdintasun saileko zinegotziak hortxe jarri zuen azpimarra: "Berdintasun planak urnietar guztiei eragingo diela aintzat hartuta, herriko eragile desberdinen lankidetzeta eta inplikazioa bilatu da haien ikuspuntuak ezagutzeko eta barneratzeko". Herriko giarte eragileen ekarpenak jaso dituzte, "plana ahalik eta anitzena, osoena eta aberasgarriena izan dadin". Planaren zabalpena egiteko oinarritzko informazioa duten liburuxka

batzuk banatuko ditu Udalak herriko etxe guztietara. Halaber, hainbat herritarren parte hartzea izan duen bideo bat argitaratuko da. Bestalde, plana bere osotasunean ikusgai dago Urnieta.eus webgunean.

Zinegotziak esker oneko hitzak izan ditu planaren osaketan parte hartu duten eta ekarpenak egin dituzten pertsona guztientzat: "zuei esker Urnietaren egoerara eta testuingurura egokituriko plana osatu dugu".

Dokumentala martxoaren 4an "Fabricando mujeres, ¿Consumimos violencia?" izenburupean, dokumentala eskainiko dute martxoaren 4an Saroben.

Planak lehentasunak jaso ditu

- Bizitzen zaintza: zaintzei dagokien lekua eman, zaintzen garrantzia aitortu eta herri bezala zaintza-lanen berrantolaketa modu justuagoan eta orekatuagoan egiteko bidea abiatzea.
- Balio-aldaketa, berdintasunerantz: sentsibilizazioa, kontzientziaketa eta hezkidetzeta indartzea. Horretarako lanketa bereziak egingo dira. Izan ere, herritar guztiek baldin badute gizarte desberdinkerien berri eta horien inguruko gogoeta egin badute, errazagoa izango da pixkanaka aldaketak egiten joatea.
- Gazteengana gerturatzea: berdintasun baloreak ardatz dituen gizarte izateko ezinbestekoa da azpimarra oinarrian jartzea, eta, hala, gazteengana gerturatzeo saiakera berezia egingo da.

POSTONTZIA

EH BILDU URNIETA

Udalerriko hainbat kaletako egoera

Urnietako zenbait kaleren egoera salatu nahi du herriko EH Bilduk.

Kezka handiz bizi dugu Idiazabal kalean gertatzen ari dena. Behin eta berriz salatu badugu ere, udal gobernu taldeak ez du erakusten kudeaketa bideratzeko gai denik. Bertako dendak ere guztiz kaltetuak daude eta ibiltarien pasabideak ez dute oso seguruak direnik ematen. Aukera dugun era guztietan salatu dugu eta gehiengoak ez du konpontzeko biderik ematen. Bide batez, Idiazabal kaleko kaltetuei dei egiten diegu edozein kezka edo ekarpen helarazteko, landuko dugu eta.

Bestalde, Txoritagain auzoko parkeak tristuraz bete gaitu. Jolasen berritzea ez

genuen sekula honela egingo zela pentsatuko. Sarrerak zaharkituak, irisgarritasunik gabeak. Itxiturak ustelduak, lurra arrakalatua. Hemendik gure desadostasuna luzatu nahi dugu eta gobernu taldeak egindako txapuz salatu.

Norbaitek probatu al du, noizbait, gurpildun aulkia hartu eta Urraka, Txoritagain edo Zabaleta kaletik ibiltzea eta beste puntara joatea?

Azkenik, herrian dauden puntu beltzak ere salatu nahi ditugu, adibide gisara, Lasarteko bidean, oinez sagardotegira joatea gonbidatuko genieke herritarrei. Ilunpean egin beharko lukete, halabeharrez. Hau ere salatu dugu, baina ilunpean jarraitzen dute.



Senior mailakoek garaipena eskuratu zuten Mariñoren aurka (4-3). UKE

Emaitza onak asteburuan

FUTBOLA Urnietan, nesken taldeak lan eta lan ari dira. Aurreko asteburuan emaitza onak lortu zituzten, gainera, zenbait mailatan. Asteburu honetan infantil eta kadete mailako taldeak Urnietako zelaian ariko dira

Erredakzioa URNIETA

Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailakoei hamar jardunaldi geratzen zaizkie ligaxkari amaiera emateko. Ez da denboraldi erraza izaten ari, baina aurrekoan poz galanta hartu zuten sailkapenean askoz puntu gehiago dituen Mariño taldea garaitu ostean. Sailkapenaren behaldez kokatuta daude urnietarrak, eta garaipen honek beste zapora bat utzi die. Igandean Oiartzunen dute partida (10:45), sailkapenean bigarren postuan doan aurkari zailaren kontra.

Kadete mailakoak kopako laugarren jardunaldian garaipen argia eskuratu zuten (0-4), eta sailkapenean bigarren postura igo dira. Santo Tomas lizeoaren aurka partida berria dute, larunbat eguerdian Urnietan bertan (12:00).

Infantil mailako neskek ligaxkaren 11 jardunaldi jokatu dituzte, eta bigarren postuan sailkatuta daude. Aurreko asteburuan berdinketa lortu zuten, Antiguan (2-2). Igande honetan Goierri liderra jasoko dute etxean (11:30).



Kadete mailako neskek garaipena eskuratu zuten Intxaurdiren zelaian (0-4). UKE



Infantil mailakoek berdinketa eskuratu zuten Luberriren aurkako partidari (2-2). AIURRI



EUSKALDUNA

Sailkapenean, hirugarren

ARETO FUTBOLA Oiartzun taldea garaituta (4-0), sailkapenaren goialdean dabil Euskalduna taldea. Gipuzkoako areto futboleko lehen mailan jokatzeko ari dira, eta liga amaitzeko azken hamar jardunaldietan sartu dira. Asteburuan Idiazabalen dute partida. Ez dirudi partida zaila denik. Andoaindarrak garaipen berria eskuratzen ahaleginduko dira.



UKE

Sailkapenean, hirugarren

ESKUBALOIA Urnieta Guria Jatetxea gizonen jubenil taldeak ezin izan zuen Egia garaitu (26-25). Urnietarrak partidako tarte askotan nagusi izan baziren ere, garaipena eskuratzeko azken bultzadaxo horren faltan izan ziren. Urnieta Kamox Precision Machining jubenil nesken taldeak ere esku hutsik amaitu zuen Leizaran taldearen aurkako partida (3 2-18).



Urnietako
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Musika

Korta eta Perarnaud musikaren emanaldia, Andoaingo Piano Jaialdiaren atarian.

19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Erakusketa

Trentxiki argazki elkartearen eskutik: "Mizelanea-Trentxiki AE 10 urte". Orduetgia:

Astelehenetik ostiralera: 18:30-20:00. Asteartetan itxita. Larunbata: 10:30-13:30 / 18:00-20:30.

Otsailaren 25a bitarte. Bastero.



Puska biltzaileak artxiboko irudian. AIURRI

OSTIRALA 11

ANDOAIN Musika

Francisco Escudero Kontserbatorioko orkestra sinfonikoaren emanaldia. Andoaingo Piano Jaialdiaren atarikoia.

19:15, *Bastero*.

ANDOAIN Puska-Biltzea

Axeriak Leizotz aldean ibiliko dira, etxez etxe eta baserriz baserri. Inauterien iragarle bilakatu dira Axeriak, nekazal giroko inauteriak berreskuratuz.

Otsailak 12, larunbata. 07:45, Irunberri elkartetik abiatuta.

LARUNBATA 12

ANDOAIN Puska-biltzea

Axeriak Leizotz aldean ibiliko dira.

07:45, *Irunberri elkartea*.

ANDOAIN Piano Jaialdia

Euskal Herri osoko musikarientzat erreferentziatzko jaialdia da.

Ostiraletik igandera.

ANDOAIN Irakurtaldia

"Kapitala-Karl Marx", irakurketa kolektiboa.

11:00, *Andoaingo Gaztetxea*.

IGANDEA 13

URNIETA Dantza

"Ur Bizitan", Haatik dantza konpainiaren aurre-estrenaldia.

19:00, *Sarobe*.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Antzerkia

"Lehendakari gaia", Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza aktoreen eskutik. Txalo konpainiaren ekoizpena.

20:30, *Bastero*. 12 euro.

LARUNBATA 19

ANDOAIN Kaldereroak

Udal Musika Eskolako abesbatzak lagunduta, kaldereroen kalejira Zumea plazaraino.

17:00, *San Juan bataiatzailea*.

17:45, *Goikoplaza*.


IGANDEA 20

URNIETA Antzerkia

"Altsasu", La Dramatica errante konpainiaren eskutik.

19:00, *Sarobe*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****No Somos Nada.**

Astelehena, 14. 19:30, 22:00.

Bella y el circo magico

Igandea, 20. 17:00.

El callejón de las almas perdidas

Igandea, 20. 19:30. Astelehena, 21. 19:30, 22:00.

Belfast

Lar., 26. 19:30, 22:00. Ig., 27. 19:30. Ast., 28. 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**NO SOMOS NADA**

Zuzendaria: Javier Corcuera. **Gidoia:** Javier Corcuera, Manuel Viqueira. **Aktorea:** Evaristo Paramos. **Generoa:** Dokumentala. **Ekoizpena:** Tamboura Films, La Mula Producciones... **Iraupena:** 100 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Aguraindik Mundura

La Polla Records aurkezpenik behar ez duen musika taldea da, batez ere Euskal Herrian. Punkaren talde ospetsuenetako bat agur esateko itzuli da. Taldearen azken bira dela eta, Evaristo Paramos abeslariak berrogei urteko historia biziberritu du. Aguraindik mundu zabalera ari zaio hizketan. Duela 40 urte bezala,

musika irauli zuten lagun talde hark bezala. "Ellos Dicen Mierda", "No somos nada", "Txus", "Salve", "Carne pa' la picadora", "Cara Al Culo"... Ereserkiak bata bestearen atzetik egin zituzten, milaka jarraitzaileen gozamenerako. Zinemaldian aurkezpena egin eta gero, bi saio iragarri dituzte Basteron.

Odol-emaileak Andoainean

Datorren astelehenean (otsailak 14) andoaindarren txanda izango da odola emateko, Arrate pilotalekuan, arratsaldeko 16:30etik iluntzeko 20:30ak arte. Egunean bertan hitzordua hartu beharko da: 943 007 884 telefonora deituta. Azken asteetan nabarmendu dutenez, odola ematea beharrezkoa da, erreserbak jaisteari baitira.



AIURRI



andoainDARRA
euskaraz



AEK

Erreflexiologia ikastaroa

Datorren astean, hilaren 15ean, erreflexiologiaren gaineko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu du Urnietako AEK-k, Zilegi Eskola egitasmoaren barruan. Arratsaldeko 17:45etik 19:45era izango da saioa, doan, Iñigo Royo Manterola adituaren gidaritzapean. Alabaina, alde zuzenetik, izena ematea komenigarria da.



AIURRI

Kultur eragileei deialdia

Andoaingo Jai Batzordeak deialdia egin du: "2022ko Santa Krutz festen harira, egitaraua prestatzeko lanean ari gara eta zuen laguntza, ideiak eta proposamenak entzuteko bilera ireki batera gonbidatu nahi zaituztegu". Bilera hori datorren asteartean Irunberri elkartearen izenean (otsailak 15), arratsaldeko 18:30tan hasita.

Inklusibitatea aintzat hartuko duen naturgunea, Urnietan

Aurrera Markelekin ekimenak ekitaldia antolatu du Besabin. Igandean izango da, 10:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Aurrera Markelekin elkarteak eskaera zehatza egin dio Urnietako Udalarari: Besabi eta Adarra mendiaren artean dagoen udal-lursail bat egokitzea. Gaixo dagoen insignis pinu sailaren

ordez naturgune ireki eta zabalagoa egokitu nahi dute, Markel bezalako haurrak eroso egon daitezkeen. bat dago. Ohar bidez adierazi dutenez, "Maria Lesacaren -Markelen ama- kezka arean sortu zitzaizun ideia,



Haatik konpainia, aurreko ikuskizun batean. HAATIK

Dantza garaikidea, zuzeneko musika eta hitza Saroben

Haatik dantza konpainiak sormen berriaren aurre-estrenaldia egingo du, igande honetan

Erredakzioa URNIETA

Aiert Beobidek abian jarritako Haatik Dantza Konpainiak hamar urte bete ditu. Konpainiak sorkuntza propioetan lan egiteaz gain, hainbat sortzaileekin elkarlanean aritu da proposamen artistiko ezberdinak eskeiniz. "Ur bizitan!" ikuskizuna Urnietan prestatzen aritu dira, eta aurre-estrenaldia igande honetan izango da (19:00, Sarobe). Eta hortik aurrera Tolosa, Hondarribia, Igorre... Euskal Herriaren barrena ibiliko dira.

Amaiur Luluaga, Jon Arsuaga, Irati Sorondo, Iñigo Etxeberria eta Libe Sukia oholtzan ariko dira dantzan, eta musikari lanean berriz Iñaki Dieguez akordeolaria, Javi Perez pianojolea eta Manu Gaigne perkusio-jotzailea.

Ahots bat entzungo da ikuskizunean, hura Olatz Beobide aktorearena.

Ikuskizunerako maila handiko bidelagunak izan ditu Haatik konpainiak. Pascal Gaignerena da musika, eta gidoia Koldo Izagirrerena. Izagirrek berak Literaturaren genero guztiak landu ditu, bere idazlanetan. Dantza sorkuntza bat inoiz idatzi ez izanak piztu zion bereziki lan hau aurrera eramateko interesa.

Natura, garapena... ertz ugari ditu ikuskizunak. Konpainiak horrela definitu du ikuskizuna: "Gizaki eta natura baliabideen arteko elkar ulertze zintzo baten beharrez kokatzen den alegoria bat da".

Donostiako familia baserriaren baten kontakizunak bultzatu du konpainia sorkuntzaren bidaia hau abiatzera. Haien aitortzek hunkitu, alaitu, liluratu eta haserretu ditu kideak. Baina batez ere, zer pentsa sorrazazi, eta garai hailetako gertaeren inguruko jakin-mina piztuz.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Helene, Alex eta Aetz
Urte askotarako hirukote! Aurten ere iritsi zaigu otsaila, eta horrekin batera zuen urtebetze egunak! Gure etxeko txikiak, Alexek, eskua bete urte egin ditu baloiari ostikoka, etxeko dantzari gazteenak, Helenek, 8kotea osatu du konturatzerako eta etxeko dantzari finenak, Aetzek, 15 urte bete ditu kabriola eta buelta artean. Jarraritu orain arte bezain jator! Muxu handi bana etxeko guztien partez!



ANDOAIN

Jon
Otsailaren 14an 10 urte!
Hamaika poz eta une goxo eman dizkiguzu. Segi jator eta zoriontsu! Muak.



ANDOAIN

Iria
Zorionak Iria!
Otsailaren 6an, 3 hilabete bete zenituen. Muxuak etxeko partetik.



ANDOAIN

Ane
Anek 7 urte beteko ditu datorren otsailaren 16an. Zorionak eta muxu potoloak etxeko partetik.

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnietan: 943 006 680.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.



Markel Carmona Lesaka, gurasoekin batera. AURRERAMARKELEKIN



AIURRI



AIURRI



AIURRI



AIURRI

Ohitura zaharra biziberritu zuten

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatuta, Santa Ageda bezperako ohitura biziberritu zuten Andoainen. lazko etenaldiak ez du gogoa itzali, eta dozenaka lagun hurbildu ziren euskara elkarteak egindako deialdian

Erredakzioa ANDOAIN

Santa Ageda bezperako koplak kantatzeko gogoz zegoen lagun asko ditugu Andoainen. Pande-

mia tarteko, iaz ez zen kalejira-rik antolatu. Aurtengoan, aldiz, jende mordo atera zen Larramendi Bazkunak deituta.

Gaztetxoek zein helduek, makilekin lurra joaz eta erritmoa markatuz, Santa Ageda bezperako tradiziozko kantak bizibe-

rritu zituzten, eta horien artean, eskualdeko jendeak bereziki aspalditxotik kantatu izan duen "Otso Beltza" izenekoa, Leitza-ran bailarako herritarrek izututa zeuzkan letagin zorrotzeko otsoaren istorioa kontatzen duena.

Otsaila tradizioak biziberritze-ko hilabetea izango da.

**SANTA AGEDA
BEZPERAKO BIDEOAK
IKUSGAI DAUDE
AIURRI.EUS
WEBGUNEAN**

Mozorroak eta giro ona, otsailean

Mozorrotzea gogoko duenari, aukerarik ez zaio faltako Andoainen.

Puska-biltzea

Axeriak Leizotz aldean ibiliko dira, etxez etxe eta baserriz baserri. Inauterien iragarle bilakatu dira Axeriak, nekazal giroko inauteriak berreskuratuz.
Otsailak 12, larunbata.
07:45.
Irteera: Irunberri elkarte.

Kaldereroak

Udal Musika Eskolako abesbatzak lagunduta, kaldereroen kalejira Zumea plazara. Ino.
Otsailak 19, larunbata.
17:00, S. Juan Bataiatzailea.
17:45, Goikoplaza.

Ostegun gizona

Mozorro festa Ludotekan, sari banaketa ekitaldia Basteron eta kalejira herrian zehar.
Otsailak 24, osteguna.
17:00, Mozorro festa.
17:30, Maskara lehiaketa.
18:00, Txaranga kalez kale.

Ostiral mehea

Playback saioa Ludotekan, bingo berezia Gazte Lokalean eta Gontzal Mendibil Basteron.
Otsailak 25, ostirala.
17:00, Playback saioa.
17:30, Bingo berezia.
20:30, Kontzertua.



- **Denboraldi honetako saria: Mizpiradi sagardotegiko sagardo-kaxa.**
- **"Aiurri" taldea 9. denboraldirako prest.**